EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Komunikaziorako Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Comunicación*

XII. Legegintzaldia - XII Legislatura
2020-2024

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailak 19**

**Vitoria-Gasteiz, 19 de julio de 2022**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lana eta Enplegua**

## GOBERNU KONTSEILUAK 1,13 MILIOI EURO ONARTU DITU GIZARTE EKONOMIARAKO LAGUNTZETAN

Gobernu Kontseiluak 1,13 milioi euroko laguntzak onartu ditu gaur Gizarte Ekonomiarako, zehazki prestakuntza eta laguntza teknikorako. Dirulaguntza horiek bat egiten dute Enpresen Gizarte Erantzukizuna hedatzeko hilabete honetan bertan berretsitakoekin. Oraindik osatu gabe dago, baina laster onartuko dira Ukrainako gerrak Gizarte Ekonomiako enpresetan izango dituen ondorioak arintzera bideratutako laguntzen sorta.

Laguntzen lehenengo deialdia gizarte-ekonomiako enpresetan **laguntza teknikoa** emateko da, eta 440.000 euroko zuzkidura du. Zehazki, honako jarduera hauek finantzatzera bideratuko dira laguntzak: Urteko Kudeaketa-Plan bat egitea eta ezartzea; bazkideei bermeak emateko aldez aurreko ekonomia- eta finantza-azterketa egitea; Kooperatiben eta Lan-Sozietateen merkataritza-kudeaketari buruzko berariazko aholkularitza ematea; gerentziari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea; zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko planak; erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea; enpresen digitalizazio- eta ingurumen-beharren diagnostikoa egitea; digitalizatzeko tresnak ezartzea; eta ingurumen-arloko hobekuntza-ekintzak ezartzea.

2021eko deialdian 250.000 euroko zuzkidura egin zen helburu horretarako, eta osorik banatu ziren. 67 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren, 83 kudeaketa-tresna egiteko eta ezartzeko aukera eman zutenak.

Era berean, 697.000 euro onartu dira **gizarte-ekonomiako prestakuntzarako**. Kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko prestakuntza-jarduerak izan daitezke unibertsitate-(aurreko-) eta/edo sozietate-eremuan, unibertsitate-eremuan, bai eta dibulgazio- edo ikerketa-jarduerak ere. 2021ean 560.814 euroko laguntzak eman ziren.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

# EUSKO JAURLARITZAK 480.000 EURO JARRIKO DITU EUSKADIKO ARRAZA PURUEN ABELTZAINTZA-USTIATEGIAK MODERNIZATZEN LAGUNTZEKO

- **Erakunde onuradunak izango dira ustiategiak modernizatzeko ahaleginak koordinatzen eta sustatzen dituztenak, eta merkaturatzea laguntzen dutenak**
- **Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira abeltzaintza-lehiaketak antolatu edo horietan parte hartzearen ondoriozkoak, baita liburu genealogikoak sortu eta mantendu, eta abereen errendimenduaren edo kalitate genetikoaren probak egitearen ondoriozkoak ere**

Eusko Jaurlaritzak 480.000 euro jarriko ditu, guztira, 2022an zehar Euskal Autonomia Erkidegoko arraza puruen abeltzaintza-elkarteen eta -erakundeen jarduera finantzatzeko, Kontseiluaren azken bileran onetsitako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduan arautukoarekin bat.

Erakunde onuradunak izango dira ustiategiak modernizatzeko ahaleginak koordinatzen eta sustatzen dituztenak, liburu genealogikoak kudeatzearen, hautapen-programak gauzatzearen eta etekinak kontrolatzearen bidez.

Halaber, eskuratutako emaitzak zabaltzen dituzte, eta animalien eta produktuen merkaturatzea bultzatzen dute. Horiek horrela, efikazia handiagoa lortzen da ekoizpenean eta errentagarritasun handiagoa ateratzen zaie abeltzaintza-ustiategiei. Horretarako, programa berritzaileak eta teknologia berriak aplikatzen dituzte progresiboki. Horrekin guztiarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko mendiko abeltzaintza eta landa-eremuak garatu eta sustatzen dituzte, eta horixe bera da Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira abeltzaintza-lehiaketak antolatu edo horietan parte hartzearen ondoriozkoak, baita liburu genealogikoak sortu eta mantendu, eta abereen errendimenduaren edo kalitate genetikoaren probak egitearen ondoriozkoak ere.

**Eskaerak aurkeztea**

Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaerak elektronikoki aurkeztu beharko dira. Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako agiriak izapidetzeari buruzko zehaztapenak helbide hauetan daude eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/servicios/1046106
https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1046106

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartzen diren identifikaziorako eta sinadura elektronikoko bitartekoak helbide honetan daude jasota: https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-

onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/.

**Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak**

## GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO ALOKAIRURAKO 266 BOE ERAIKITZEKO ANDOAINGO UDALAREKIN EGINDAKO HITZARMENARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Andoaingo Udalarekin hitzarmen bat sinatzeari. Hitzarmena Andoaingo hiru eremutan, Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai izenekoetan, alokairu-erregimeneko babes sozialeko 266 etxebizitza sustatzeko da, eta herria berroneratzeko, infraetxeak kentzeko eta etxe berriak sustatzeko jarduketak egingo dira.

Bi erakundeen arteko akordioak ezartzen du Etxeberrietan, eremuan hondatuta dauden bizitegi-eraikinen arazoari erantzuna emateko Hiri Antolamenduko Plan Berezi berri bat egin ondoren, 58 etxebizitzako eraikin bat eraikiko dela gero, bigarren fasean, eraitsiko diren eraikin zaharretan bizi diren familiei ordezko etxebizitza emateko. Bigarren fase horretan beste eraikin bat eraikiko da libre geratu den orubean, eta babes sozialeko 108 etxebizitza egingo dira. Bestalde, hitzarmenak jasotzen du 80 bat etxebizitza eraikitzea Ama Kandida izeneko eremuan eta beste 20 Agirialai izenekoan.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila arduratuko da desjabetzeak eta ordezko etxebizitzak emateko prozesua kudeatzeaz, bai eta eraikuntza-proiektuak egiteaz eta obrak zuzendu eta gauzatzeaz ere. Bestalde, Udalak dohainik lagako ditu lursailak, eta Etxeberrietan antolamendutik kanpora dauden etxebizitza batzuei buruzko gizarte eta hirigintza alorreko azterlana aginduko du.

**Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak**

## GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO BEIZAMAKO UDALAK LURSAIL BAT DOHAINIK LAGATZEARI ALOKAIRUKO 12 BOE ERAIKITZEKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Beizamako Udalak Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari 1.314 m2-ko lursail bat dohainik lagatzeari, herrian alokairuko gizarte-babeseko hamabi etxebizitza eraikitzeko.

Etxebizitza horien diseinua arkitekturako profesional gazteentzako “Europan” lehiaketaren barruan egin da. Sailak kokapen hori proposatu du arkitekturaren ikuspegitik aurre egiteko landako herrietako erronka demografikoari, bai eta etxebizitza produktiboen, lan egiteko aukera ematen duten etxebizitzen, kontzeptua sakontzeko ere, horien beharra areagotu egin baita pandemiaren ondorioz. Beizamako erronka izan da “Europan” lehiaketaren barruan, bederatzi herrialdetako 40 kokapenen artean, proposamen gehien jaso dituena.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EURO BIDERATUKO DITU LESBOSEKO ERREFUXIATU-EREMU BERRIAN ELIKAGAIAK BANATZEKO

- **Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarteak garatuko du laguntza-ekimena**
- **Gobernu Kontseiluak zuzeneko diru-laguntza ematea ere onartu du Hegoa Institutuari eta Espainia eta ACNUR-Euskal Batzordea elkarteei**

Gobernu Kontseiluak zuzeneko hiru diru-laguntza onartu ditu gaur Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari eta Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzari lotutako bi proiektutarako.

Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkarteak 200.000 euroko diru-laguntza zuzena jasoko du Lesbos uharteko Kara Tepe zelai berrian errefuxiatuei elikagaiak banatzeko proiekturako, kalteberatasun-indize handia baitute.

Bestalde, Espainia ACNUR-Euskal Batzordearekin elkarteak 50.000 euro jasoko ditu Ukrainako gatazkaren ondorioz errefuxiatuak eta desplazatuak babesteko eta larrialdiko laguntza emateko.

Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Goi Mandatariak dei egin du Ukrainan zaurgarritasun-egoeran dauden nazioarteko babeseko eskatzaileei laguntza emateko. Eusko Jaurlaritzak zuzeneko diru-laguntza honekin erantzungo dio larrialdiko apelazio honi, herrialde mugakideetako errefuxiatuei laguntza emango baitie, oinarrizko beharrizanetarako zerbitzuetarako sarbidea bermatuz.

Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoaren arabera, Hegoa UPV/EHUko Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuak 50.000 euroko diru-laguntza zuzena jasoko du Egiaren eskubidea bakea eraikitzeko tresna gisa izeneko udako ikastaroa egiteko. Nazioarteko elkarrizketa, Kolonbiako esperientziatik abiatuta. Nazioarteko topaketa bat izango da, egiaren legatura hurbiltzea eta Egiaren Batzordeek arlo horretan egindako ekarpena aztertzea helburu duena.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 300.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ONARTU DU ZANBRANAKO LANOS GAZTELUKO EGITURAK PREMIAZ SENDOTZEKO OBRAK FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, 300.000 euroko dirulaguntza onartu du Zanbranako Udalarentzat, Zanbranako Lanos Gazteluko egiturak premiaz sendotzeko proiektua finantzatzeko.

Defentsa-multzo hori Lanos muinoaren gailurrean dago, eta hainbat fasetan eraikitako sei elementuk osatzen dute: lau angeluko oinplanoa duen dorrea, hareharrizko harlanduz eta argamasaz egina; mendebaldetik dorre horri erantsitako solairu bakarreko eraikina; eta, azkenik, ixten ez diren lau harresi-lerro zentrokide. Azken lau defentsa-elementuak dorrea inguratuz artikulatzen dira, batez ere hego-ekialdetik, ipar-mendebaldean sakan natural batek osatzen baitu defentsa.

Eraikina hondatzen ari da etengabe, eta 2022an egindako memoria baten bidez ezarri da dorrearen eta haren egonkortasunaren eta harresiko horma-atalen esku-hartzeak direla premiazkoenak. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, euskal kultura-ondarearen babesa bermatzeko, 300.000 euro bideratuko ditu premiazko lan horietara.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## URDUÑAKO UDALAK 700.000 EURO JASOKO DITU BERPIZTU PROGRAMATIK, BERE KULTURA-ONDAREA SENDOTU ETA BALIOESTEKO

Gobernu Kontseiluak 700.000 euroko dirulaguntza onartu du gaur Urduñako Udalarentzat, 2022-2023 aldirako, Urduñako kultura-ondare berezia sendotu eta balioesteko proiektua finantzatzeko. Dirulaguntza honen bidez bi jarduera egingo dira: batetik, Urduñako harresiak sendotu eta balioztatzea, eta, bestetik, Txarlazo mendiko Antiguako Ama Birjinaren Monumentua sendotzea eta balioestea.

Urduñako jarduera hauek Aiaraldeako Lehentasunezko Jarduera Eremuetako (ZAP) proiektu traktoreetako baten barruan daude. Era berean, Eusko Jaurlaritzak 2020ko azaroan Euskadiko ekonomiaren eta enpleguaren susperraldiari aurre egiteko onartu zuen Berpiztu programan integratutako dirulaguntzak dira.

**Urduñako harresia**

Harresia Urduñako Hirigune Historikoaren zati da. 1997an, EAEko Babes Bereziko Kultura Ondasun izendatu zen, Monumentu Multzo kategoriarekin. Hirigune handi hori harresiz inguratuta dago, eta harresiaren horma-atala udaletxetik Andra Marira dago, baina hiriko hainbat gunetan ere tartekatzen da harresia.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 200.000 euro bideratuko ditu Andra Mari elizaren ondoko harresi-barreneko eremua leheneratzeko lanetara, hainbat jarduera garatzeko gune bat sortzeko.

**Antiguako Ama Birjina**

Antiguako Ama Birjinaren Monumentuak, Txarlazo mendian, Urduñako zaindaria oroitarazten du, eta Bizkaiko (Urduña) eta Burgosko (Villalba de Losa) lurretan dago. XX. mende hasierako hormigoi armatuzko obra handienetako bat da, eta ikur bihurtu da bizilagunentzat, erakargarritasun turistiko handia izateaz gain. 25 metroko garaiera eta 50 bat tonako pisua duen monumentua da, zapata handi batez, enbor zilindriko batez eta masustondo bat imitatzen duten adar batzuez osatua – Zuhaitz horren gainean Ama Birjina artzain xume bati agertu zitzaiola kontatzen du historiak –, Ama Birjinaren gorputz nagusia, irudia eta koroa ditu. Berezitasunetako bat da enborraren barrualdetik harmailadi bat igarotzen dela, eta bertatik zuhaitzaren adaburura iristeko aukera dagoela. Bertan, sei leihate eta Ama Birjinaren gerriaren parean dagoen goiko balkoi bat daude.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 500.000 euroko diru-laguntzaren bidez, izan ditzakeen prozesu kaltegarriak hautemateko eta geldiarazteko obrak egingo dira, bai eta egitura indartzeko lanak ere.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK IA 45.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EMANGO DIO JAKIN FUNDAZIOARI JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATEREN OBRA DIGITALIZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 44.650 euroko dirulaguntza Jakin Fundazioarentzat Juan San Martin Ortiz de Zarate (Eibar 1922-Hondarribia 2005) idazle, historialari, euskaltzain eta lehen Arartekoaren obra digitalizatzeko. Jakin Fundazioa 2018. Urtetik ari da San Martinen obra idatzia digitalizatzen.

Juan San Martin Ortiz de Zaratek euskal kulturaren hainbat alderdi aztertu zituen eta liburuez gain, hainbat izan ziren egunkari eta aldizkari ugaritan jorratutako alorrak. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak emandako dirulaguntzarekin 792 argitalpen tratatuko dira (4.970 orrialde): 11 liburu, 19 liburu-atalak, 672 aldizkarietako artikuluak, 17 itzulpen, 4 lan editore gisa burututakoak, eta baita Juan San Martini buruzko idazlan eta elkarrizketak (orotara 73). Idazlanak bildu, aztertu, katalogatu, zuzendu eta OCRz irakurgarri izateko digitalizatuko dira. Asmoa digitalizatutako obra guzti hori 2022. honetan sarean jarri ahal izatea da.

Dirulaguntzaren helburua San Martinen obra, sakabanatua eta eskuragaitza, ikerlari eta belaunaldi berrien eskuetan uztea da, hiritarrentzat eskuragarri izateko eta ikertzaileei azterbide berriak sortzeko.

**Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa**

## MBT PROGRAMAK 2 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO MERKATARITZAREN BERRIKUNTZAREKIN, KALITATEAREKIN ETA TEKNOLOGIA BERRIEKIN LOTUTAKO PROZESUETARAKO LAGUNTZETARA

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 2 milioi euroko programa onartu du Gobernu Kontseiluan, Euskadiko MBT (Merkataritzako Bulego Teknikoak) laguntzen duena. Sare horrek 50 bulego tekniko lortzea espero du deialdi honetan. Helburua da kalitatezko aholkularitza ematea txikizkako merkataritza-banaketaren sektore osoari eta haren erakundeei, doan, eta sailetako politikak euskal retailera helaraztea. Programa honen helburua da berrikuntzarekin, kalitatearekin eta teknologia berriekin lotutako prozesuak bultzatzea, langile kualifikatuen laguntzarekin, eta maila anitzeko lankidetza-estrategiak sustatzea. Zeregina genero-ikuspegiarekin, jasangarritasunarekin eta eraldaketa digitalarekin beteko da.

Edizio honetan, laguntzen onuradun izateko irizpideak eguneratu dira, elkarte mistoetako merkataritza-establezimenduen ehunekoari dagokionez, eta ezarpen-maila eta ordezkagarritasuna egiaztatu dira, atxikitako establezimenduen arabera. Laguntzak norgehiagokaren bidez ebatziko dira, eta, beraz, edizio honetan, zenbatekoa handitzeaz eta onuradun izan daitezkeenei eskatutako baldintzez gain, sakondu egin da jarduera-ildoen eta proiektuen edukiaren xehetasun zehatzagoa eskatzeko gardentasun handiagoa lortzeko.

Euskadiko Merkataritzako Bulego Teknikoak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-enpresei laguntzeko aktibo nagusietako bat dira, eta balio erantsi handiko baliabidea dira politika publikoen koordinazioan eta kudeaketan. MBTek aholkularitza ematen diote sektoreari bere jarduerak gauzatzean eta lehiakortasuna hobetzean. Beren funtzioa eraginkorragoa da, lan egiten duten hurbiltasunetik.

**Trabajo y Empleo**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA 1,13 MILLONES DE EUROS EN AYUDAS PARA LA ECONOMÍA SOCIAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy ayudas por valor de 1,13 millones de euros dirigidas a la Economía Social, en concreto para formación y asistencia técnica. Estas subvenciones se unen a las ratificadas este mismo mes para la difusión de la Responsabilidad Social Empresarial. Queda pendiente completar el paquete de ayudas con las dirigidas a paliar las consecuencias de la guerra de Ucrania en las empresas de la Economía Social que se aprobaran próximamente.

La primera convocatoria de ayudas es la dirigida a la **asistencia técnica** en las empresas de Economía Social y está dotada con 440.000 euros. En concreto, las ayudas irán dirigidas a financiar las siguientes actividades: la elaboración e implantación de un Plan de Gestión Anual; la realización del estudio económico financiero previo para la prestación de garantías a los asociados; el asesoramiento específico en gestión comercial de las Cooperativas y Sociedades Laborales; la contratación de servicios especializados de apoyo a la gerencia; planes de reactivación de empresas en dificultades; implantación de nuevas herramientas de transformación de las organizaciones; la elaboración de un diagnóstico de las necesidades de digitalización y medioambientales de las empresas; la implantación de herramientas para la digitalización; y la implantación de acciones de mejora en materia medioambiental.

En la convocatoria de 2021 se dotaron 250.000 euros para este fin que se concedieron en su totalidad. Se presentaron 67 solicitudes de subvención que posibilitaron la realización e implantación de 83 herramientas de gestión.

Asimismo, se han aprobado 697.000 euros para la **formación en economía social**. Podrán ser actividades formativas sobre el cooperativismo o las sociedades laborales en el ámbito (pre)universitario y/o societario, en el universitario, así como actividades divulgativas o de investigación. En 2021 se concedieron ayudas por 560.814 €.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

# EL GOBIERNO VASCO APOYA CON 480.000 EUROS LA MODERNIZACIÓN DE LAS EXPLOTACIONES GANADERAS DE RAZAS PURAS DE EUSKADI

- **Las entidades beneficiarias son las que coordinan e impulsan los esfuerzos en pro de la modernización de las explotaciones y ayudan a la comercialización**
- **Para la organización y participación en certámenes ganaderos, la creación o mantenimiento de libros genealógicos y la realización de pruebas de calidad genética o rendimiento**

El Gobierno Vasco financiará durante 2022 con un total de 480.000 euros la actividad de las asociaciones y organizaciones ganaderas de razas puras de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tal como se regula en la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente aprobada en la última reunión del Consejo.

Las entidades beneficiarias son aquellas que coordinan e impulsan los esfuerzos en pro de la modernización de las explotaciones, gestionando los libros genealógicos, ejecutando los programas de selección y el control de los rendimientos.

También difunden los resultados obtenidos y ayudan en la comercialización de los animales y sus productos, permitiendo alcanzar una mayor eficacia en la producción y una mayor rentabilidad de las explotaciones ganaderas, con la progresiva aplicación de programas innovadores y de nuevas tecnologías. Contribuyen así al desarrollo e impulso de las zonas rurales y de agricultura de montaña del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, que es una de las prioridades del Gobierno Vasco.

Los gastos subvencionables son los derivados de la organización y participación en certámenes ganaderos, la creación o mantenimiento de libros genealógicos y la realización de pruebas de calidad genética o rendimiento del ganado.

**Presentación de solicitudes**
El plazo de presentación de las solicitudes para acogerse a esta convocatoria será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Las solicitantes deberán presentar las solicitudes por canal electrónico. Las especificaciones para la tramitación de la solicitud, las declaraciones responsables y demás documentación están disponibles en las siguientes direcciones:

https://www.euskadi.eus/servicios/1046106
https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1046106

Los medios de identificación y firma electrónica admitidos en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi están accesibles en la siguiente dirección:

https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos.
**Planificación Territorial, Vivienda y Transportes**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA EL CONVENIO CON EL AYUNTAMIENTO DE ANDOAIN PARA CONSTRUIR 266 VPO PARA ALQUILER

El Consejo de Gobierno ha dado su visto bueno a la firma, por parte del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Iñaki Arriola, de un convenio con el Ayuntamiento de Andoain para impulsar 266 viviendas de protección social en régimen de alquiler en tres áreas del municipio guipuzcoano, Etxeberrieta, Ama Kandida y Agirialai, donde se realizará una intervención urbanística de renovación urbana, eliminación de infravivienda y promoción de nuevos hogares.

El acuerdo entre ambas instituciones establece que en Etxeberrieta, tras la redacción de un nuevo Plan Especial de Ordenación urbana para abordar la degradación de varios edificios residenciales en el ámbito, se construirá un bloque de 58 viviendas que realojará a las familias cuyas viviendas antiguas serán derribadas después, en una segunda fase. En esta segunda etapa, se construirá otro edificio en el solar liberado, con 108 viviendas de protección social. Por otro lado, el convenio incluye la construcción de alrededor de 80 viviendas en Ama Kandida y otras 20 en Agirialai.

El Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes será el encargado de gestionar las expropiaciones y los realojos, así como de elaborar los proyectos constructivos y de dirigir y ejecutar las obras. El Ayuntamiento, por su parte, cederá gratuitamente las parcelas y encargará un estudio socio-urbanístico sobre varias viviendas fuera de ordenación en Etxeberrieta.

**Planificación Territorial, Vivienda y Transportes**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA LA CESIÓN GRATUITA DE UNA PARCELA POR EL AYUNTAMIENTO DE BEIZAMA PARA CONSTRUIR 12 VPO EN ALQUILER

El Consejo de Gobierno ha autorizado la cesión gratuita de una parcela de 1.314 m2 por parte del Ayuntamiento de Beizama al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, para la construcción de doce viviendas de protección social en alquiler en el municipio guipuzcoano.

El diseño de estas viviendas ha formado parte del concurso europeo para jóvenes profesionales de la arquitectura Europan, un emplazamiento que el Departamento ha propuesto para afrontar desde la arquitectura el reto demográfico de las poblaciones rurales y para profundizar en el concepto de las viviendas productivas –hogares en los que poder trabajar-, cuya necesidad ha aumentado debido a la pandemia. El reto de Beizama ha sido el que más propuestas ha recibido entre los 40 emplazamientos de nueve países distintos de Europan.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 200.000 EUROS AL REPARTO DE ALIMENTOS EN EL NUEVO CAMPO DE REFUGIADOS DE LESBOS

- **La iniciativa de ayuda será desarrollada por la ONG Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartea**
- **El Consejo de Gobierno también ha aprobado la concesión de una subvención directa al Instituto Hegoa y a la asociación España con ACNUR-Euskal Batzordea**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy tres subvenciones directas a sendos proyectos vinculados a la Dirección de Migración y Asilo y a la Dirección de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad.

La organización Zaporeak Solidarios Garapenerako Elkartea recibirá una subvención directa de 200.000 euros para su proyecto de reparto de alimentos a las personas refugiadas en el nuevo campo de Kara Tepe, ubicado en la isla de Lesbos, que presentan un alto índice de vulnerabilidad.

Por su parte, la asociación España con ACNUR-Euskal Batzordea recibirá 50.000 euros destinados a la protección y ayuda de emergencia para la población refugiada y desplazada como consecuencia del conflicto en Ucrania.

El Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Refugiados ha hecho un llamamiento a proporcionar asistencia a solicitantes de protección internacional que se encuentran en Ucrania en situación de vulnerabilidad. El Gobierno Vasco responde a esta apelación de emergencia con la concesión de esta subvención directa que contribuirá al amparo de la población refugiada en los países limítrofes, asegurando su acceso a servicios de necesidades básicas.

Finalmente, en virtud de lo aprobado por el Consejo de Gobierno, Hegoa, el Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional perteneciente a la UPV/EHU, recibirá una subvención directa de 50.000 euros para la realización de un curso de verano que llevará por título *El derecho a la Verdad como herramienta para la construcción de paz*. *Diálogo internacional a partir de la experiencia de Colombia.* Se tratará de un encuentro internacional que persigue un acercamiento al legado de la verdad para la construcción de paz, así como analizar la contribución de las Comisiones de la Verdad en este ámbito.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA SUBVENCIÓN DE 300.000 EUROS PARA FINANCIAR LAS OBRAS DE CONSOLIDACIÓN DE URGENCIA DE LAS ESTRUCTURAS DEL CASTILLO DE LANOS EN ZAMBRANA

El Consejo de Gobierno, en su reunión de hoy, ha aprobado una sunbvención de 300.000 euros para el ayuntamiento de Zambrana con el objetivo de financiar el proyecto de consolidación de urgencia de las estructuras del Castillo de Lanos, en Ocio, Zambrana.

Este conjunto defensivo se encuentra en la cima del cerro de Lanos y se compone de seis elementos desarrollados en diferentes fases: una torre de planta cuadrangular, construida con sillería de arenisca con argamasa; un edificio de una sola planta anexo a esta torre por el oeste; y, por último, cuatro líneas de muralla concéntricas que no llegan a cerrarse. Los cuatro últimos elementos defensivos se articulan rodeando la torre, principalmente por el sureste, ya que hacia el noroeste la defensa está constituida por un barranco natural.

El recinto presenta un estado de ruina en continuo deterioro y mediante una memoria realizada en 2022 se ha establecido que las intervenciones que mayor urgencia tienen son las de la torre y su estabilidad, así como la de los paños de la muralla. Para ello el Departamento de Cultura y Política Lingüística, con el objetivo de garantizar la protección del patrimonio cultural vasco, destinará 300.000 euros a estos trabajos de urgencia.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL AYUNTAMIENTO DE ORDUÑA RECIBIRÁ 700.000 EUROS DEL PROGRAMA BERPIZTU PARA LA CONSOLIDACIÓN Y PUESTA EN VALOR DE SU PATRIMONIO CULTURAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una subvención de 700.000 euros para el ayuntamiento de Orduña, en el período 2022-2023, con el fin de financiar el proyecto de consolidación y puesta en valor del patrimonio cultura singular de Orduña. Mediante esta subvención se llevarán a cabo dos actuaciones: por un lado, la consolidación y puesta en valor de las Murallas de Orduña, y, por otro, la consolidación y puesta en valor del Monumento de la Virgen de la Antigua en el Monte Txarlazo.

Estas actuaciones en Orduña se enmarcan en uno de los proyectos tractores de la Zonas de Actuación Preferente (ZAP) de Aiaraldea, cuyas subvenciones están integradas, a su vez, en el programa Berpiztu que el Gobierno Vasco aprobó en noviembre de 2020 para hacer frente a la recuperación económica y de empleo en Euskadi.

**Muralla de Orduña**
La Muralla forma parte del Casco Histórico de Orduña, declarado en 1997 Bien Cultural de Protección Especial de la CAPV, con la categoría de Conjunto Monumental. Este gran casco urbano se rodeó de muralla de la que se conserva el paño desde la casa consistorial a Santa María, así como tramos intermitentes en distintas zonas de la villa.

El departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 200.000 euros a las obras de regeneración de la zona de intramuros del recinto fortificado junto a la iglesia Andra Mari con la que se pretende crear un espacio para el desarrollo de diversas actividades.

**Virgen de la Antigua**
El Monumento a la Virgen de la Antigua, en el monte Txarlazo, conmemora a la patrona de Orduña, y se encuentra en terrenos vizcaínos (Orduña) y burgaleses (Villalba de Losa). Es una de las mayores obras de hormigón armado de principios del siglo XX y se ha convertido en un símbolo para los vecinos, además de ser un gran atractivo turístico. Se trata de un monumento de 25 metros de altura y unas 50 toneladas de peso, formado por una gran zapata, un tronco cilíndrico con unas ramas que imitan a una morera –árbol sobre el que la historia cuenta que la Virgen se apareció a un humilde pastor– el cuerpo central, la imagen y la corona de la Virgen. Una de sus singularidades es que por el interior del tronco discurre una escalinata por la que se accede a la copa del árbol que alberga un amplio salón con seis ventanales y a una balconada superior situada a la altura de la cintura de la Virgen.

Mediante la subvención de 500.000 euros del departamento de Cultura y Política Lingüística se realizarán obras de detección y contención de los procesos dañinos que pueda tener, así como el refuerzo de su estructura.

# EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA SUBVENCIONARÁ A LA FUNDACIÓN JAKIN CON CASI 45.000 EUROS PARA LA DIGITALIZACIÓN DE LA OBRA DE JUAN SAN MARTÍN ORTIZ DE ZÁRATE

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una subvención de 44.650 euros a la Fundación Jakin para la digitalización de la obra del escritor, historiador, académico y primer Ararteko Juan San Martín Ortiz de Zárate (Eibar 1922-Hondarribia 2005). La Fundación Jakin lleva digitalizando la obra escrita de San Martín desde el año 2018.

Juan San Martín Ortiz de Zárate estudió diferentes aspectos de la cultura vasca y además de libros, trató diferentes temas en numerosos periódicos y revistas. Con la subvención concedida por el Departamento de Cultura y Política Lingüística se digitalizarán 792 publicaciones (4.970 páginas): 11 libros, 19 volúmenes, artículos de 672 revistas, 17 traducciones, 4 obras que realizó como editor, así como obras y entrevistas sobre Juan San Martín (73 en total). Las obras se recopilarán, analizarán, catalogarán, corregirán y digitalizarán para ser legibles al OCR. La idea es que toda esta obra digitalizada se pueda colgar en la red este año 2022.

El objeto de la subvención es poner la obra de San Martín en manos de investigadores y nuevas generaciones, con el fin de hacerla accesible para la ciudadanía y crear nuevos medios de estudio a los y las investigadoras.

**Turismo, Comercio y Consumo**

## EL PROGRAMA OTC DESTINA 2 MILLONES DE EUROS EN AYUDAS A LOS PROCESOS RELACIONADOS CON LA INNOVACIÓN, CALIDAD Y NUEVAS TECNOLOGÍAS DEL COMERCIO DE EUSKADI

El Departamento de Turismo, Comercio y Consumo ha aprobado en Consejo de Gobierno el programa dotado con 2 millones de euros que da soporte a las OTC de Euskadi (Oficinas Técnicas de Comercio). Esta red, que espera alcanzar en esta convocatoria un total de 50 Oficinas Técnicas, está destinada a proporcionar un asesoramiento de calidad de forma gratuita a todo el sector de la distribución comercial de carácter minorista y sus organizaciones y trasladar al retail vasco las políticas departamentales. Este programa tiene como objetivo impulsar, mediante la asistencia de personal cualificado, procesos relacionados con la innovación, calidad y nuevas tecnologías, así como promover estrategias de colaboración multinivel. La tarea será asumida con una perspectiva de género, de sostenibilidad y de transformación digital.

En esta edición se han actualizado los criterios para poder ser beneficiario de las ayudas en lo relativo al porcentaje de establecimientos comerciales en asociaciones mixtas y verificación del nivel de implantación y representatividad en base a los establecimientos adheridos. Las ayudas se resuelven por concurrencia competitiva por lo que, en esta edición, además del incremento de importe y los requisitos solicitados a los potenciales beneficiarios, se ha profundizado en aras a una mayor transparencia en exigir un detalle más explícito de las líneas de actuación y del contenido de los proyectos.

Las Oficinas Técnicas de Comercio del País Vasco representan uno de los activos principales de asistencia a las empresas comerciales de la Comunidad Autónoma y constituyen un recurso de alto valor añadido en la coordinación y gestión de las políticas públicas. Las OTCs proporcionan al sector asesoramiento en el desempeño de sus actividades y en la mejora competitiva. Su función es más operativa desde la cercanía con la que trabajan.